

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Iragarkia

Alkatetzak 2025eko abuztuaren 7an emandako Ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Hierros Servando, SL, Azpeitiko «31. Trukutxo» eremuan «UE.1/31 Trukutxo» jarduketaren unitatean kokatutako lurren jabea den aldetik, eremua hitzarmen-sistemaren bidez kudeatzeko egindako hitzarmen-proposamenari. Hitzarmenaren edukia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2025eko abuztuaren 13an argitaratu zen.

Dagokion tramitazioa eman ondoren, Herriaren Gobernu Batordeak 2025eko urriaren 7an behin betiko onarpena eman zion.

Hitzarmenean jasotako konpromisoei dagokienez, honako hauek gehitu behar dira:

Hierros Servando SL-k bere gain hartuko du pertsonak eta ibilgailuak instalazioetara sartzeko eta irteteko eremu publikoaren (Repartzelazio proiektuaren 1. emaitzazko partzela) mantentze-lanen betebeharra, erabilera hori emaitzazko partzela horretan garatzen den jarduerari soil-soilik lotuta baitago.

Era berean, hirigintza-aprobetxamenduaren nahitaezko lagapenaren ondoriozko lurzatian, Udalak lehendik dagoen eraikina kontserbatzeko ahalmena izango du.

Akordio honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze erre kurtsoa jarri ahal da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal da ebazpena, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitatzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal da.

Azpeitia, 2026ko otsailaren 10.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (972)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Anuncio

Por Decreto de Alcaldía de 7 de agosto de 2025 se aprobó inicialmente la propuesta de convenio que formula la mercantil Hierros Servando SL, en su condición de propietario de terrenos incluidos en la unidad de ejecución «UE.1/31. Trukutxo», situada en el ámbito «31. Trukutxo» del PGOU, para la gestión del ámbito por el sistema de concertación. El contenido del Convenio se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 13 de agosto de 2025.

Tramitado el correspondiente expediente la Junta de Gobierno Local con fecha 7 de octubre de 2025 acordó su aprobación definitiva.

En cuanto a los compromisos recogidos en el Convenio, deben añadirse los siguientes:

Hierros Servando, S.L. asumirá la obligación de mantenimiento del espacio público de entrada y salida de personas y vehículos a las instalaciones (parcela resultante 1 del Proyecto de Repartelación), dado que dicho uso está vinculado exclusivamente a la actividad que se desarrolla en dicha parcela resultante.

Asimismo, en la parcela resultante de la cesión obligatoria del aprovechamiento urbanístico, el Ayuntamiento tendrá la facultad de conservar el edificio existente.

El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Azpeitia, a 10 de febrero de 2025.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (972)